

JARDUKETA IZENA:	Kolaka, proiektuko ekintzek haren populazioarengan zer-nolako eraginkortasuna duten ebaluatzea D7 Kolakaren jarraipena
Zer KBEtan edo Kontserbazio Bereziko Eremutan dihardugun:	
Bidasoa Ibaia KBE	
LOTURA NATURA 2000ekin	
Ekintza KBEak Kudeatzeko Planen helburu operatibo hauen baitan kokatua dago: 5.1.1. Izokin arruntaren, kolakaren, itsas lanproiaren eta burtainaren kontserbazio egoera hobetzea.	
KBEko funtsezko elementu onuradunak	
Kolaka funtsezko elementuetako bat da "Bidasoa Ibaia" KBEaren kudeaketan, eta haren kontserbazio egoera hobetzeko proposatu diren neurri nagusien artean, oztopoak eraistea dago.	
JARDUKETA LEKUA ETA UDALERRIAK:	
Bera eta Lesaka	
Data	
2017-2018	
Aurrekontua	
38.572 €	
Proiektuaren ekintza loturikoak	
Espeziearen beharrak eta haren egungo kokapen geografikoa ikusita, loturirik handiena duten kontserbazio ekintzak C6 "Endarlatsa iragazkortzea" eta C7 "Bera iragazkortzea" dira.	
Lanaren deskribapena - HELBURUAK	
Jarraipen ekintza honen helburua kolakarekin loturiko kontserbazio ekintzaren eraginkortasuna neurtzea da; horretarako, espeziearentzat egokiak diren Bidasoa ibaiaren tarte batzuetan (ziur aski proiektuko ekintzek ukituko dituzten haietan) alderatu eginen ditugu ugalketa-adierazleen hasierako eta bukaerako balioak.	
Lanaren deskribapena - AURREKARIAK	
Kolaka itsasoa bizi eta ibaietan ugaltzen da. Europako kostalde atlantikoetan banatua dago. XIX. mendearen erdira arte, espezie ugaria zen, eta arrantza-entresa garrantzitsuen oinarria zen hainbat herrialdetan. Gaur egun, ordea, Europa iparraldeko hainbat populazio iraungitzaletan jotzen dira, baita Marokokoak ere; eta gainerako banaketa eremuan bakana da. Frantziako eta Portugalgo zenbait ibaitan baizik ez ditu nolabaiteko muntako populazioak. Kolakaren mehatxu eragilerik handienak dira (1) migrazioarendako hesiak, (2) ur kutsatuak, (3) habitataren aldaketak, eta (4) arrantza neurrigabea. Nafarroan, kolaka (Alosa alosa) populazio bakarra Bidasoa ibaian dago. Egiaztaturik dago gutxienez 1978tik badagoela kolaka Bidasoren ibilgu nagusian.	
Lanaren deskribapena – JARRAIPENEN DESKRIBAPENA	
Kolaka ugalketa garaian bakarrik dago ibaian; horregatik, ez da erabiliko teknikarik , baldin eta ugalketa edo biziraupena arriskuan jar dezaketen manipulazioak (arrantza elektrikoa, tranpak, harrapatzeko lekuak, adibidez) erabili behar badira. Dena dela, kolaka gaez baizik ez da ugaltzen eta haren kopulak deigarriak dira oso; horregatik erabil daiteke populazio ugaltzailearen ugaritasuna kontrolatzeko eta kalkulatzeko metodologia, ugalketa garaian	

kopula kopurua zenbatuz. Ezagutzen diren arraba-lekuetan gaueko ikuspena duten bi kamera erabiliko dira, eta fokoz hornitutako behatzaileak ere bai.

Teknika horien bidez honako **adierazle** honen balioa adieraziko da: kolakaren "kopula indizea", hots, ikusitako kopula kopurua behaketa-orduekin erlatibizatua (kopulak/ordu), eta hori kalkulagarria da hala gaueko laginketa bakoitzerako nola ugalketa garai guztirako.


Bestalde, **azterlan eremuari** dagokionez, lanak "Bidasoa Ibaia" KBEan egingen dira, haren behe-tartean, Nafarroak Gipuzkoarekin eta Lapurdirekin duen mugatik Berako San Martin presa igaro arte (C7).

Jarraipenaren **denbora banaketari** dagokionez, planteamenduak oinarri du alderatzea hasierako egoera edo lanen aurrekoa eta bukaerako egoera edo lanen ondokoa.

JUSTIFIKAZIOA Zer lortu nahi dugu? – ESPERO DIREN EMAITZAK

Emaizta hauek espero dira:

- Kolakaren "Kopula Indizea" adierazlearen hasierako eta bukaerako balioa ezagutzea.
- Kontserbazio ekintzen eraginkortasuna baloratzea, hasierako eta bukaerako ebaluazioak alderatuz.



D7: Kolakaren jarraipena